

## **GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAREN 2021eko AZAROAREN 16ko BILKURAREN AKTA**

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) eta 2021eko azaroaren 16ko 13:00ak direnean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, honako pertsona hauen parte-hartzearekin:

- **Presidentea:** Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (hemendik aurrera, eLankidetzak) eta haren Kontseilu Errektoreko presidentea.
- **Bokala:** Iker Atxa Zaitegi jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakariaren ordezkari gisa.  
**Bokala:** Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Kabineteko zuzendaria, Osasun Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Fernando Iturriaga jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Jone Miren Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Azpiegitura Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Sofía Marroquín Guerrero andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Idazkaria:** Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria.

Era berean, guk gonbidatuta eta gai-zerrendan bildutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko xedez, Pilar Diez Arregi eLankidetzako teknikaria bertaratu da.

### **Sarrera**

eLankidetzako eta haren Kontseilu Errektoreko presidentek hartu du hitza bertaratutakoei ongietorria egiteko, eta bilkurari hasiera eman dio, gai-zerrenda honekin:

1. 2021eko urriaren 26an egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
2. 2021eko ekintza humanitarioko estrategiak emateari buruzko informazioa
3. 2021eko ekintza humanitarioko proiektuak emateari buruzko informazioa
4. IV. Gida Planaren ebaluazio-prozesuari eta hura luzatzeko proposamenari buruzko informazioa
5. Galde-eskeak

Presidenteak eman dio hasiera bilkurari, eta adierazi du gaur aztertu beharreko gai-zerrendari buruzko dokumentazio guztia aldeztu aurretik helarazi dela.

### **1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea**

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2021eko urriaren 26ko bilkuraren akta onartu da, bertaratu diren guztien aldeko botoekin.

### **2. 2021eko ekintza humanitarioko estrategiak emateari buruzko informazioa**

Ekintza humanitarioko estrategiekin zerikusia duen urteko azken deialdiko emateari dagokionez, presidenteak jakitera eman du 4.500.000 euroko aurrekontua zeukatela, eta nabarmendu duenez, jasotako 11 eskaeratik 6 esleipendun izan dira, guztira 4.371.910 euroko zenbatekoarekin, erakunde bakoitzeko laguntza bat baino ez da eman, eta Afrikako kontinenteari lehentasuna emateko erreserba errespetatu da, kontinente horretan 2 ekimen onartu direlako (emandako totalaren % 31).

Zehazki, esleipen honetan, Ekialde Ertainean (Palestina eta Libano), Afrikan (eskualde-ekimen bat Kongoko Errepublika Demokratikoan, Ugandan eta Kenyan, eta beste bat Saharan) eta Erdialdeko Amerikan (eskualde-ekimen bat Costa Rican, El Salvadorren eta Nikaraguan) kokatutako ekimenak bultzatu dira.

Pilar Diez Arregik, berriz, informazio hori osatu du onartutako eskaeren, funtsak agortzeagatik atzera bota direnen eta bazter utzitakoen gaineko xehetasun batzuk emanez.

Behin azalpenak eman ondoren, Kontseilu Errektoreko kideek ez dute galderarik egin, eta beraz hurrengo puntura pasatu gara.

### **3. 2021eko ekintza humanitarioko proiektuak emateari buruzko informazioa**

Presidenteak jakinarazi duenez, estrategia humanitarioen deialdiko soberakina, hau da, 128.089,22 euro, ekintza humanitarioko proiektu-lerroari transferitu zaio, eta, esleitzeko zegoen soberakinarekin batera, Kongoko Errepublika Demokratikoan beste ekimen bat bultzatzeko aukera badago.

Pilar Diez Arregik xehetasunen bat eman du onartutako azken proiektu horren inguruan, eta labur-labur azaldu du martxotik irekita egon den eta orain funtsak agortzearekin batera ixtera doan proiektu-deialdia.

#### **4. IV. Gida Planaren ebaluazio-prozesuari eta hura luzatzeko proposamenari buruzko informazioa**

Paul Ortega Etcheverryk hitza hartu du, eta, aditzera eman duenez, 2018-2021 aldirako IV. Gida Plana, abenduan amaitzekoa zena, 2 urtez luzatuko da. Zenbait arrazoi izan dira erabaki hori hartzeko: implementatzeko 4 urte osoak eduki ez izana (6 hilabete behar izan ziren landu eta abian jartzeko, ebaluatzeko denboraz gainera...), Planaren gauza berriak martxan jartzeko zailtasunak (Auzolankideak, eremu estrategikoak...), COVID-19ak zenbait ekintza moteldu izana, langile-falta (eLankidetzako taldea ez da 2021era arte sendotu), eta lege-aurreproiektuak plangintzen gainean dauzkan ondorioak. Horregatik, 6 hilabetez luzatuko da Lege berria onartu ondoren. IV. Gida Plana azken hiruhilekoan ebaluatzen ari da aurreikusita zegoen bezala, eta ebaluazioaren emaitzen arabera planteatuko dira 2022-2023 aldirako doikuntza, hobekuntza eta lehentasunak.

Luzapena eskumeneko organoen aurrean tramitatuko da ofizialki.

#### **5. Galde-eskeak**

Paul Ortega Etcheverryk jakinarazi du garapenerako lankidetzari buruzko lege-aurreproiektuari hasiera emateko agindua eman dela, eta horrenbestez alde aurreko informazioaldia ireki dela, 20 egunez herritarrei kontsulta egiteko legea aldatzeko beharraren eta aukeraren inguruan. Informazioa Irekia Legesarean eta Iragarki Taulan egongo da eskuragarri, eta gure webgunearen, sare sozialen eta mailing-aren bidez zabalduko dugu. Bi aste barru eLankidetzak Saileko zerbitzu juridikoei helaraziko die zirriborroa, eta haiek txostena egin ostean, gainerako alde aurreko txostenak ematen hasiko gara.

Josu Urrutia Beristainek galdetu du noizko aurreikusten den lege berria onartzea, eta txostenetan planteatzen denaren arabera izango dela erantzun dio, baina 2022ko lehen seihilekoan Legebiltzarrean egon litekeela, eta haren ustez, hilabeteotan aurrera eraman den parte hartzeko prozesuak hurrengo urratsak erraztuko dituela.

Patricia Bárcenak hitza hartu du, eta, adierazi duenez, datozen asteetan kargudun berria sartuko da, eta hark ez du gehiago bilkura honetan parte hartuko. CEAR Euskadi, Euskal Kontseilua ordezkatzuz jarduteko prest dagoela berretsi du, eta izendapen berrirako prozedurari jarraipena egingo diotela.

Presidenteak Patriciari eskerrak eman dizkio, urte hauetan egindako lanarengatik. Gogora ekarri duenez, Kontseilu Errektorearen urteko azken bilera da hau, eta hurrena 2022ko urtarrilean edo otsailean deituko da, funts banagarriak eta deialdiak onartzeko.

Ez denez beste gairik proposatu, saioa amaitutzat eman da 13:30ean. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2

artikuluaren lehen paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE<sup>o</sup> Beatriz Artolazabal Albeniz andrea,  
Agentziako eta haren Kontseilu  
Errektoreko presidentea.

Paul Ortega Etcheverry  
Kontseilu Errektoreko idazkaria  
GLEAko zuzendaria